

2012KO TXOTX DENBORALDIAREN IREKIERA

Julian Iantzik txotx denboraldi berria inauguratu du eta Sagardoetxeatik Euskal Herriko sagardotegien bilatzailea aurkeztu dugu

Julian Iantzi izan da txotx denboraldi berria ireki duena gaur goizean Astigarragako Sagardoetxean, sagardoaren museoan, burutu dugun 20.12.12ko ustaren aurkezpenaren ekitaldian.



Sagardo Berriaren Eguna 2012

Andoni Gartzia Astigarragako Alkateak urta berriaren aurkezpenaren prentsa-aurrekoa zuzendu du **Sagardoetxean**, eta bertan, **sagararen ezaugarriak**, **sagardo berriaren berezitasunak** eta **2012. urterako berrikuntzak** aurkeztu dira. Aurtengo sagardoa, "afurutatua eta freskagarria" bezala aurkeztu da.

Bere aldetik, Sagardo Berriaren Egunean **Julian Iantzi** protagonista oso pozik agertu da gonbidapenarekin eta "**Sagardotegiak gure herriaren parte dira, kultura, hizkuntza, gastronomia, etb. bezala eta gure izaeraren parte dira**" adierazi du. Prentsa-aurrekoa amaitu ostean, sagardotegiak sagastian sagarrondo berri bat landatu du eta ondoren, "Gure sagardo berria" oihu eginda, txotx denboraldi berriari hasiera eman dio **Astigarragako Petritegi sagardotegian**.

Euskal Herriko sagardotegien bilatzailea

Aurtengo berrikuntzetako bat "**Euskal Herriko sagardotegien bilatzailea**" da, sagardotegi bakoitzaren gustuen arabera sagardotegi guztiak kontsultatzeko aukera ematen duen web gunea.

Bertan kontsulta daitekeen informazioa honakoa da: **sagardotegiaren kontakturako datuak** (telef., helbidea, emaila, web gunea, etb...), **bazkariak/afariak** (disponibilitatea, ezaugarriak, menuak, prezioa, jankide kopurua, ordutegia, etb...), **informazio orokorra** (kokapena, hizkuntzak, zerbitzuak, etb...), **produktuak/denda, enotizismoko zerbitzuak** (bisitak, dastaketak, denda, esperientziak, etb...) eta **geolokalizazioa** (Google Maps).

Aplikazioaren helbidea:
<http://www.sagardoetxea.com/sagardotegiak/>



Sagardoetxea sagardoaren kulturaz gozatzeko leku bat da, euskaldunen identitate eta ohituren ezaugarri. Naturarekin harremanetan ikasteko leku bat, ikusi, ukitu eta dastatuta... Txotx!

Harpidetza

Sagardoaren museo
Museo de la sidra
Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga - Gipuzkoa
Tel.: 00 34 943 550 575
info@sagardoetxea.com
www.sagardoetxea.com

Sagardodenda

Euskal Sagardoaren Online Denda

